

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIKAK



San Migel eta apostoluen *jaztetxiak*

Makinatxo bat ofatiar eta kanpotar faten da Korpuzti egunian Santa Anara, prozosiñua hasi baiño ordubete lehenago-edo, **santu biziak jazten** ikustera: hau da, **hamabi apostoluak, Jesukristo** eta, batez be, **San Migel**. Garai bateko elizan, orain ikuskizun-leku bihurtutakuan, egitten da hori: azkenaldixan **Minerva** kofradixako hamalau kidiok areto horretako eszenarixo gaiñian itxura-aldaketan dittue.

Baiña, gaur egun jente aurrian egin arren, ezta beti hala izan. Sasue batian **era ixa ezkutuan buruketan zan santuen jazte-prozesua**. Santa Ana elizako **sakristixan** aldaketan ziran hamabi apostoluak eta Jesukristo; San Migeleri, barriz, komenturako sarreran eguen **lokutorixuan** ipintten otsain armadura astuna eta gaiñontzeko apainddura dotoriak. Lokutorixua komentu eta monasterixuetan, klausurakuetan batez be, kanpoko bixitentzako egoten dan geliari esaten xako. Berba egitteko lekuari.

Horrek holaxe jarraitu eben, gutxi gora behera, Santa Anako monjak Zubikoatik Garagaltza auzora fan ziran arte. **Komentua 1980ko hamarkadan sakon barriztau zan**, ikuskizunetarako nahiz hitzaldittarako aretua modutuaz, eta ikastolarako gelak mol-dauaz; harrezkero, urte gutxiren buruan, **kofradixakide danak leku berian gertaketan hasi ziran** prozosiñorako, sasue bateko elizan. Gerora, herrittarairi ikusteko aukeria emun xaten, eta hartara, **lehen eginkizun sekretu samarra zana Korpus eguneko atal publiko eta ezaguna bihurtu xaku**.

Gaurko fotografixa honeittan garai bixak ikusi zeikei. Batian **San Migel, komentuko lokutorixuan jantzi ondoren, ate zaharretik urtetan agiri da**; ezkerreko banderaduna **Gregorio Lizarra Etxatxo** da; eskumako emakumia barriz, **Paulina Kernstock**, jazte-lanetan lagunketan euenetako bat; San Migelen atzetik Bixaingo **Elias Sagastizabal** dator, Ama Birjiñiaren errepresentaziñua egitten ebena, baiña jazkera berezi barik; aspaldixuan emakumiak beteten daue pertsonaje horren papela.

Beste argazkixan **aretoko eszenarixo gaiñian dago San Migel**, atzeko erretablak erakusten doskunez. **Tere Letamendik** azkenengo begiradia botaten daguela emuten dau, goiangeruaren pelukia, karetia eta kaskua ondo egogittuta geldittu ete diran konprobau guran-edo. Fotografixa bata 1970ko hamarkadakua izan leike eta bestia 15-20 urte beranduagokua. Horra ba, labur antzian azalduta, **San Migelek eta apostoluak Santa Ana barruan euki izan dittuein jaztetxe desbardin batzuk**.

Fotografixa haundixa Udal Artxiboko Arzuaga funtsekua da eta Izar Salaberriri esker eskuratu dogu. Txikiña geure etxeko argazki-bilduman agertu xaku.